

12. MARTXAN MINBIZIAREN AURKA GIPUZKOAN · HANDBIKE ETA OINEZKO LASTERKETA 5KM

Dokumentu hau aldatu egin daiteke, dagozkion erakundeen baimena jaso arte.

1. EKITALDIAREN EGUNA ETA LEKUA

12. MARTXAN MINBIZIAREN AURKA GIPUZKOAN, datorren igandean, **2026ko maiatzaren 10ean**, ospatuko da Alderdi Ederren, Donostian,

2. KORRIKALARIENTZAKO ZERBITZUAK

- **KAMISETA Y TXIP DORTSALA:** Kamiseta teknikoa, txip dortsala eta lasterketarako kronometrajea banatuko da. Izen-ematea betetzean, lekua aukeratu ahal izango duzu.
- **HELMUGA OSTEKO HORNIDURA:** Hornidura likidoa eta solidoa lasterketa amaitzean Alderdi Ederren.
- **KONTSIGNA:** Motxilak gordetzeko zerbitzua Alderdi Ederreko terrazan. Zerbitzua Lasterketako parte-hartzaileentzat soilik. Gipuzkoa Plazan (Aldundiaren ondoan).
- **GURUTZE GORRIAREN ZERBITZUAK:** Ibilbidearen zehar osasun-laguntza emateko zerbitzua.
- **MEDIKU-ASEGURUA:** Antolakuntzak kirol-instrupuen aseguru bat kontratatuko du lasterketako parte-hartzaile bakoitzarentzat
- **ALDAGELA ETA DUTXAK:** La Kontxako kabina kolektiboetan aldagela eta dutxa zerbitzua egongo da.

3. PROGRAMA

- **09.55 →** 5km-tako handbike lasterketa. Irteera eta amaiera Alderdi Ederren.
- **10.00 →** 5km-tako oinezko lasterketa. Irteera eta amaiera Alderdi Ederren.
- **10.25-10.40 →** Sari banaketa Udaletxeko Terrazan.
- **10.45-11.25 →** Zumba Masterclass Udaletxeko Terrazan.
- **11:00-12:00 →** Zientzia Txokoa haurrentzat, Alderdi Ederren
- **11.30-12.50 →** 3Km-tako Martxa eta Martxa Nordikoa. Irteera eta amaiera Alderdi Ederren.

4. SARITUTAKO KATEGORIAK

- **Emakumezko absolutua**
 - Txapeldun
 - Txapeldunorde
 - Hirugarrena
- **Gizonezko absolutua**
 - Txapeldun
 - Txapeldunorde
 - Hirugarrena
- **Emakumezko bazkideak**
 - Txapeldun
- **Gizonezko bazkidea**
 - Txapeldun
- **23 urtez azpiko emakumezkoa, 14-22 urte:** ekitaldiaren urtean urteak betetzen ditu.
 - Txapeldun
- **23 urtez azpiko gizonezkoa, 14-22 urte:** ekitaldiaren urtean urteak betetzen ditu.
 - Txapeldun

Gainera, parte-hartzaileen artean hainbat zozketa egingo dira, eta gure sare sozialetan zehaztuko ditugu.

5. INSKRIPZIOAK

Inskripzioak honela egin ahal izango dira:

- Webgune hauen bidez: **rockthesport.com enmarcha.contraelcancer.es eta kronoak.com:**
 - <https://enmarcha.contraelcancer.es/eu/ekitaldia/carrera-y-marcha-contra-el-cancer-en-gipuzkoa>

Izena emateko epea 2026ko martxoaren 3an hasi eta maiatzaren 7an amaituko da (23.59h) edo plazak agortu arte.

Inola ere ezin izango da izena eman probaren egunean bertan.

6. TARIFAK

- Sub-23 Tarifa → 14-22 urte bitarteko inskripzioa*: 10€
- Helduen Tarifa → 23 urtetik gorako pertsonentzat: 14€
- Handbike Tarifa
- Martxa Tarifa: 10€ Haur-kotxeek eta txakurrek ez dute ordaindu behar.

*Ekitaldia ospatzen den urtean adina betetzea
Plataformaren komisioa ez dago barne

Inskripzioaren zenbatekoak eskubidea ematen du proban parte hartzeko, erantzukizun zibileko aseguruia izateko eta antolakuntzak ezarritako zerbitzu guztiak erabiltzeko (opariak, hornidurak, kontsignak, etab.).

Korrikalari bakoitzak bere erantzukizunpean parte hartzen du lasterketan, eta proba amaitzeko behar besteko egoera fisikoa duela adierazten du.

Adin-txikikoei baimena behar dute izena emateko. Antolakuntzak dokumentu hori edozein unetan eskatzeko eskubidea izango du.

7. KAMISETAK ETA DORTSALAK JASOTZEKO

Dortsalak eta kamisetak jasotzeko lekuak eta datak:

DONOSTIAKO EGOITZAN: [Bartzelona Etorbidea, 6, 20014 Donostia, Gipuzkoa](#)

- Ostirala, maiatzak 8 → 10.00- 13.00 · 16.00-19.00
- Larunbata, maiatzak 9 → 10.00- 13.00 · 16.00-19.00

IRUNGO EGOITZAN: [Fueros Kalea, 4, 20302 Irún, Gipuzkoa](#)

- Ostirala, maiatzak 8 → 16.30-19.00

TOLOSAKO EGOITZAN: [Emeterio Arrese kalea, 2, 20400 Tolosa, Gipuzkoa](#)

- Ostirala, maiatzak 8 → 16.30-19.00

ZARAUTZEKO EGOITZAN: [Balea Kalea, 2, 20800 Zarautz, Gipuzkoa](#)

- Ostirala, maiatzak 8 → 16.30-19.00

ZUMARRAGAKO EGOITZAN: [Iparragirre Etorbidea, 1, entlo, 20700, Gipuzkoa](#)


- Ostirala, maiatzak 8 → 16.30-19.00

Korrikalaria ez den beste pertsona batek dortsala eta kamiseta jaso dezake, plataformatik inskripzioa deskargatuta eramanez gero.

8. IBILBIDEA

HANDBIKE ETA OINEZKO LASTERKETA – 5Km

Alderdi Eder – Boulevard – Erregina Erregentea – Zurriola zubia – Zurriola hiribidea – 180 graduko bira Gran Via parean – Zurriola hiribidea – Zurriola zubia – Erregina Erregentea – Boulevard – Hernani kalea – Andia kalea – Miramar kalea – Askatasunaren hiribidea – Easo kalea – Zubieta kalea – Mirakontxa pasealekua – 180 graduko bira: Antiguoko tunelean sartu aurretik – Mirakontxa pasealekua – Kontxa pasealekua: La Perla parean espaloira igaroko dira (barandaren ondotik) – Alderdi Eder.



MARTXA ETA NORDIC WALKING– 3Km

Kasu honetan, ez da ez errepidea ez bidegorria hartuko. Parte-hartzaile guztiak espaloitik joango dira une oro.

Alderdi Eder – Hernani kalea – Andia kalea – Miramar kalea – Mirakontxa pasealekua – 180 graduko bira – Mirakontxa pasealekua – Alderdi Eder.



9. OSASUN-LAGUNTZA

Antolatzaileek Gurutze Gorriaren zerbitzua izango dute. Era berean, lehen laguntzako arreta medikoa eskainiko diel helmugan premiaren bat duten parte-hartzaileei.

10. SEGURTASUNA ETA ARAUDIA

Antolakuntzak eskubidea du ibilbidearen zati bat edo osorik aldatzeko, desbideratzeko, murrizteko edo neutralizatzeko, baita beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko ere. Baldintza meteorologikoak edo antolakuntzarekin zerikusirik ez duten zirkunstantziak direla eta, proba bertan behera uzteko eskubidea ere badu.

Honako hauek egiten dituzten parte-hartzaileak lasterketatik botako dituzte

- Frogaren ibilbide ofiziala ez jarraitzea.
- Beste parte-hartzaile bat oztopatzea edo asmo txarrez kaltetzea.
- Iraina, tratu txarrak edo kiroltsaunaren aurkako jokabidea izatea.
- Araudia ez betetzea.
- Ez osatu 5 kilometroko ibilbidea 50 minutu baino gutxiagoan.

11. KRONOMETRATZEKO SISTEMA

Probaren kronometrajea txip-dorsal bidez egingo da, eta korrikalari guztiek soinaren aurrealdean eraman beharko dute, erraz ikusteko moduan.

Antolakuntzak ez du bere gain hartzen txipak markatzen duen denbora behar ez bezala irakurtzea, txipa ondo kokatuta ez badago.

Legezko eta segurtasuneko arrazoiak direla eta, ezin da beste parte-hartzaile baten dorsalarekin korrika egin inola ere. Sailkapen ofizialak enmarcha.contraelcancer.es webgunean argitaratuko dira.

12. ERANTZUKIZUNA

Antolakuntzak uko egiten dio probaren aurretik, bitartean edo ondoren parte-hartzaileei edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalte moral edo materialen gaineko erantzukizunari. Parte-hartzaileek beren buruari eta hirugarrenei eragin diezaieketen kalte guztien erantzukizuna izango dute.

13. ASEGURUA

Ofizialki inskribatutako parte-hartzaile guztiak aseguru-poliza batek estaliko ditu. Erakundeak hitzartuko du poliza hori, eta poliza horrek proba garatzearen ondorioz zuzenean gertatzen diren istripuak estaliko ditu, inoiz ez ezkutuko pairamen edo tara baten ondorio gisa, eta erregelamenduaren artikulua ez betetzea, etab.

14. EZEREZTEAK, BALIOGABETZEAK ETA ITZULKETAK

- Antolakuntzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik proba bertan behera uzten bada, inskripzioa ez da itzuliko.
- Ez dago inskripzioaren titularra aldatzeko aukerarik.
- Inskribatutako pertsona batek ezin badu parte hartu eta inskripzioa baliogabetzeko eskatzen badu, honako itzulketa hau egin ahal izango du:
 - Baldin eta maiatzaren 1a baino lehen eskatzen bada. Eta horren berri eman behar duzu gipuzkoa@contraelcancer.es helbidera idatziz, zure egoera, justifikazioa eta dagokion egiaztatzea azalduz.

Antolatzaileek ez dute inolako itzulketarik edo konpentsazio ekonomikorik jaso behar parte-hartzailea deskalifikatuz gero, ez eta ibilbidea aldatzeagatik ere.

15. DATU PERTSONALEN IRUDI- ETA BABES ESKUBIDEAK

MARTXAN MINBIZIAREN AURKA GIPUZKOANen inskribatzeak esan nahi du araudi hau onartzen dela, eta baimena ematen dela oinarrizko datuak (izena, abizenak, NAN/pasaportea, jaioteguna, sexua eta bizilekua) eta irudiak egoki iritzitako zabalkunde eta publizitaterako tratatzeko.

Gainera, parte-hartzeak antolatzaileei baimena ematen die parte-hartzailearen irudia grabatzeko eta edozein euskarritan (irratia, prentsa, bideoa, argazkia, internet, kartelak, etab.) ekitaldia sustatzeko erabiltzeko, ustiapen komertzial eta publizitario eskubide guztiak diru-konpentsaziorik gabe lagatuz.

Proba honetan inskribatze hutsagatik, parte-hartzaile guztiak erabateko adostasuna ematen dute elkarrean, bere kabuz edo baimendutako hirugarren erakundeen bidez, bere datu pertsonalak kirol-, sustapen- edo merkataritza-helburuetarako soilik tratatu edo zabal ditzan.

Adingabeen inskripzioaren kasuan, baimen horiek, datu pertsonalen tratamendurako, irudia barne, gurasoek edo legezko ordezkariak emandakotzat joko dira.

16. BESTELAKOAK

Antolakuntzak beretzat gordetzen du erregelamendu honetan aurreikusten ez diren arazoak ebazteko eta proba egin aurretik aldatzeko eskubidea; kasu horretan, inskribatutakoei behar bezala jakinaraziko zaie.

17. ANTOLATZAILEEN HARREMANETARAKO KONTAKTUA

gipuzkoa@contraelcancer.es · 635 03 98 88